

Hitzatzea

Haur Literaturaren Klasikoak


CARLO FRABETTI

Patxi Zubizarretak itzulita



Klasikoak zergatik irakurri liburu argigarrian, Italo Calvinok «klasikotasunaren» hamalau definizio eskaini zituen, neurri batean izenbururen galdera inplizitoari hamalau erantzun zeharkako-edo eskaintzen dituztenak.

- Klasikoa, esan beharreko guztia esaten amaitzen ez duen liburua da.
- Klasikoak, aditzez, ustez, zenbat eta ezagunagoak izan, orduan eta berriagoak, ustekabeagoak eta ezezagunagoak iruditzen zaizkigun liburuak dira.
- Klasikoa, unibertsoaren baliokide agertzen den liburua dugu, antzinako talismanen antzera.
- Klasikoa, gaurkotasuna halako zurrumurru urrun gisara aditzera ematen duena da, eta, aldi berean, zurrumurru urrun hori behar-beharrezkoa duena.



Definizio horiek guztiak osoki egokitu daitezke haur literaturaren klasikoetara, eta horietako zenbait (bigarrena bezala) ezin hobeki uztartzen dira. Haur guztiak ezaguna dute Pino-txo, liburua irakurri dutelakoan daude gainera, baina Italiatik kanpo inork gutxi irakurri du Collodiren nobela konplexu eta asaldagarri hori oso-osorik. Antzeko zerbait gertatzen da ipuin miresgarri tradizionalekin eta haien transkripzio kanonikoekin: aditzez, denek ezagutzen dituzte (edo bertsio disneytar goxatuen bitartez) Perrault eta Grimm anaien ipuinak, baina oso gutxi dira bertsio originalak irakurri dituztenak.



Nago, gure kulturak eginkizun dituen ardura handienetako bat, haur literaturaren klasikoak—aldi berean nonahiko eta absenteak—berreskuratzea dela. Lehenik eta behin ustezko klasikoan azterketa kritiko eta xehea egin beharko litzateke, hau da, helduen literaturarekin Erdi Aroaz geroztik egiten ari dena, baina haur literaturari dagokionean hasi-masietan dagoena.

Haur liburuekiko kritika izena merezi duen ardura hori ez da ageri, eta gisa berean haur klasikoek ez dute jaso, adituen aldetik, merezi duten arreta. Hainbestearino non, adituen partetik inongo kontrako jarrerarik gabe, *Printze Txikia* haur literaturaren mugarriztat jotzen baita, eta izan ere ez da haurrentzako liburua; eta horixe da hain zuzen ere haurrentzako liburu bat izan be-

harko lukeenaren kontrapuntua. *Printze Txikia* zera da, bizitzaz gogait eginik zegoen eta hurrengo urtean bere buruaz beste egingo zuen gizonaren testamentua, etsipenez eta ezkortasunez gainezka dagoen liburua, heriotzari eginiko kantu bat, helduen munduari kontra egin, eta haurtzaroaren halako ikuspegi nostalgiko, sentikorregi eta mixtifikatzailea eskaintzen duena.

Haurren egitekorik behinena, ezinbesteko abentura horretan, hezte da, eta haren helmuga posible eta desiragarri bakarra heldu bilakatzea da. Hala bada, *Printze Txikia* bezalako liburuak haurrentzat etsipengarriak dira, kivilgarriak, eta halako liburuak haurren esku uzten dituztenak bi gauza izan daitezke: ezjakinak, ez baitakite zerekin ari diren, edo bene-benetako sadomasokistak.

Gauza bera gertatzen zaie Andersenen ipuin asko eta askori. Badirudi idazle daniarrak psikosi maniako-depresiboa zuela, eta noiz poztasunaren gailurrean noiz malenkoniaren leizean ibiltzen zela: aurrenekoetan, umorez eta ironiaz beteriko ipuin zoragarriak idazten zituen, hala nola *Enperadorearen jantzi berria* edo *Benetako printzesa* (*Printzesa eta ilarra* izen arruntagoarekin ere ezagutzen dena); bestelako krisialdietan, oster, irakurleei eraso egiten zien *Pospolo saltzaile txikia* edo *Beruneko soldadutxo*a sasilan negar-eragileekin.



Etsipena, suizidioa edo masokismoa gai interesgarriak dira oso, eta arreta literariorik handienaren duintasun izan daitezke, baina ez dirudi egokiak direnik hamabi urtetik beherako irakurleentzat. *Printze Txikiaren* edota Andersenren ipuin askoren mezu ezkutua (bi adibide aski argigarri ipintzearen) zera da, helduon bizitzak –hots, bizitza zinez kontziente eta arduratsua– ez duela benetan baliorik, eta hobe dugula, hortaz, haurtzaroaren balizko paradisutik ustez datorren paradisuera zuzenean igarotzea. Gozoki hauek zinezko pozoiak dira eta benetako haur klasikoek muturrean daude; azken hauek, sarritan garratzak, haurrak hezteko beharrezko dituen elikagai psikikoak eskaintzen dizkiote. Ipuin miwesgarri tradizioaletan, haurrak sarritan heriotzari egin beharko dio aurre, bortizkeriari, izugarrikeriari, baina hori egin ahal izateko ulertu eta osatu egin ditzakeen istorioak baliatzen ditu, eta horrek bere irudimena eta ekimena piztu baino ez du egiten. Mundua toki arriskutsua da, sarritan bortitza, hori da ipuinek dioskutena, baina arazoak eta

elkartasunak lagundu egiten digute gu baino indartsuagoak diren –edo diruditen– etsaiak garaitzeko. Ipuin edo liburu batek haurra beldurtzea ez da txarra; txarrena gogogabetzea da, ez ulertu ez erabil dezakeen tristuraren mende geratzea.

Amaitze aldera, ausar nadin Calvinoren beste definizio-erantzun bat gaineratzen, batik batik haur literaturara zuzendua:

—Haur literaturaren klasikoak, haurrei hezten laguntzen dien liburua da, helduoi haur izaten ahalbidetzen diena (izan ere hezteak ez baita haurtzaroa «gaintzea», hau da, suntsitzea edo bertan behera uztea, ezpada sistema zabalago batean txertatzea).

Bestela esatearren, eta C. Lewisek zioen bezala:

—Haur literaturaren klasikoak, hamar urterekin, irakurketaren bitartez atseginez eta etekin bezalaxe betetzen zaituen liburua da, berrogeita hamarretan are atsegin eta etekin handiagoz irakurtzen dena.